

BASABURUAKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA

Basaburuan, 2019ko maiatzaren 24an, goizeko 8:30etan eta Basaburuako udal aretoan, ezohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Esther Lakasta alkateak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

- **Organua** : Batzarra
- **Deialdia**: lehenengoa
- **Eguna**: 2019/05/24
- **Ordua**: 8:30etan
- **Lekua**: Udalaren Batzar Aretoa
-

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

1. Esther Lakasta Perez-Illarbe
2. Xabier Azpirotz Latasa
3. Bakartxo Ripalda Zubieta

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK

1. Aitor Arangoa Mariaezkurrena
2. Marimar Ansorena Sala

IDAZKARIA

Zunbeltz Larrea Azpiri

GAI- ZERRENDIA:

1. 2018ko Udal kontuen onarpena.
2. Eskaerak eta galderak.
3. Denetarik.

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, 8:30ak direnean, Udal idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko beharrezkoa den bertaratutakoen quoruma nahikoa badagoela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1. 2018KO KONTUEN ONARPENA.

Alkateak idazkariaren likidazio txostena jarraituz Udalaren 2018ko kontuen azalpena eman du, non azaltzen den Udalak emaitza positiboa daukala eta gerakinak ere gora egin duela finantziario iturri berriei esker. Behin txostenaren azalpenak entzunda, Basaburuako udal batzak aho batez ERABAKI DU:

1.1. 2018ko Udal kontuen onartzea.

2. ESKAERAK ETA GALDERAK.

3. DENETARIK

Aztertu beharrekoak aztertuta, 9:00 Orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andreak, nirekin, idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

